

europa press / país vasco / euskera

Alberto Iñurrategi ireki du 2018ko txotx bolada

Bilbao *Merkataritzan ere Euskaraz*

SAGARDOAREN LURRALDEA

Actualizado 2018/01/15 16:29:02 CET

DONOSTIA, 15 (EUROPA PRESS)

Alberto Iñurrategi mendizaleak **2018ko txotx bolada** ireki du astelehen honetan Astigarragako **Gurutzeta** sagardotegian, "Gure Sagardo Berria" oihu eginda, XXV. Sagardo Berriaren Egunaren ospakizunean. Aldez aurretik, sagarrondo berri bat landatu du Sagardoetxeako sagastian.

Ekitaldia eguerdiko 12:00etan hasi da Sagardoetxean, prentsaurrekoarekin, eta bertan izan dira Zorione Etxazarraga Astigarragako alkatea, Bittor Oroz Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikagai Politikako sailburuordea, Denis Itxaso Gipuzkoako Aldundiko Kultura, Turismo, Gazteria eta Kiroletako diputatua, Ainhoa Aizpuru Gipuzkoako Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurune eta Lurralde Oreekako diputatua, Unai Agirre Euskal Sagardoa Jatorri Izendapeneko gerentea, Egoitz Zapiain sagardogileen bozeramailea eta Alberto Iñurrategi bera.

Prensaurrekoaren ostean, Iñurrategi sagarrondo berria landatu du Sagardoetxeako sagastian, eta ondoren, Astigarragako Gurutzeta sagardotegian "Gure Sagardo Berria" esanda, mendizale aretxabaletarrak lehen kupela ireki du, 2018ko sagardo denboraldi berria zabalduz.

2017ko uztarekin 12 milioi litro sagardo ekoiztu dira Euskal Herrian. Ekoizpenaren %30 bertako sagarrarekin egindakoa eta Euskal Sagardoa Jatorri Izendapeneko da. Guztira, 48 sagardotegik egin dute Euskal Sagardora bideratutako sagardoa: Gipuzkoako 41ek, Bizkaia bostek eta Arabako bik.

Aurreko urteetan baino kolore argiagoa duen sagardoa da. Usaimenean oso garbia da: lehendabiziko sagarrekin egindako sagardoek fruta freskoaren usaina dute eta uztaren erdialde nahiz amaierako sagarrekin egindakoek, aldiz, fruta usain helduagoak dituzte. Karboniko maila ona duten sagardo naturalak dira, kupeleko hartidura ondo egin baita, eta orokorrean, sagardo oso orekatua da.

Ad SunMedia

Play this for 1 minute and see why everyone is addicted

Vikings: War of Clans

Te puede gustar

Amazon's Bezos Stuns U.S. With Shocking Move

The Sweet Shrew

Babysitter Hears Noise Upstairs, So Dad Checks Hidden Camera

Woke History



Recomendado para ti

Se descubre una supertierra orbitando un minisol

Hablarás cualquier idioma en poco tiempo con esta app elaborada por más de 100 lingüistas

Babbel



Recomendado para ti

Las normas de protocolo que se saltaron tanto la Reina Letizia como Doña Sofía: "estuvieron desafortunadas las dos"

Ganga para Gunzenhausen : vuelos baratos desde 14€ ida y vuelta

www.jetcost.es



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Últimas noticias / País Vasco »

- Prezioak %0,3 igo dira EAEn martxoan eta urte arteko tasa %1,2 da
- Miguel Sánchez-Ostiz eta Miguel Gutiérrez Garitano abenturaz eta literaturaz ariko dira datorren asteartean, Bilbon
- "Leo Da Vinci: Mona Lisa Misioa" euskaraz estreinatuko da ostiral honetan Hego Euskal Herriko zinema aretoetan

Lo más leído

- 1 Oinarritzko kirolean euskararen erabilera normalizatzeko sentsibilizazio kanpaina berria antolatu du Bilboko Udalak
- 2 Radio Bilbaoren Bikaintasunaren Saria jasoko du Euskaltzaindiak apirilaren 17an
- 3 Geolodia 2018 ibilaldia Euskal Kostaldeko Geoparkean egingo da, maiatzaren 12an
- 4 BBVak kanal anitzeko inbertsio aholkularitza tresna berria atera du, bezero bakoitzari egokitua
- 5 "Leo Da Vinci: Mona Lisa Misioa", euskaraz Hego Euskal Herriko zinema aretoetan

Hoy | Una semana | Un mes

Cupones de descuento




Código descuento Barceló Hoteles



Cupón Hawkers



Código descuento Casa del Libro



Código promocional Atrápalo

La actualidad más visitada en europa press

FARMACIA

Los 8 errores más frecuentes en el uso del omeprazol

REALEZA

La Reina Letizia, su cambio de actitud después de la polémica



Horario y recorrido de la manifestación en Barcelona el 15 de abril en defensa de los presos soberanistas

ÚLTIMAS NOTICIAS

ESPAÑA

INTERNACIONAL

DEPORTES

VÍDEOS

ECONOMÍA

SOCIEDAD

CIENCIAPLUS

PORTALTIC

MILOJOS.ES

EPSOCIAL

CHANCE

CULTURAOCIO

DESCONECTA

EPDATA.ES

INFOSALUS

MOTOR

TURISMO

NOTIMÉRICA

Portal de actualidad y noticias de la Agencia Europa Press.

Las cookies propias y de terceros nos permiten analizar su navegación para mejorar nuestros servicios y enviarle publicidad personalizada acorde a sus intereses. Continuar navegando implica la aceptación de nuestra [política de cookies](#).

Acepto